

Herri Aldizkaria

Otamotz

2005eko abendua 112. alea



O tabaco
leva-me a
vida e o
dinheiro

Tabakoaren Aurkako Legea: Erretzaileak, txokora!

KOLABORAZIOA: ARAIZ PADRON

ELKARRIZKETAK: JUANLU ESCUDERO ETA MARI CARMEN MENDIA

IZERDI PATSETAN: JOSE ANGEL GARCIA VARA

ESKOLA PUBLIKOA



***KAXKA ZURI SUDUR GORRI
MENDI GAINA ZURI ZURI
ZORIONAK ZORIONAK
BERTAN DITUGU GABONAK***



J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA

DBH-BATXILERGOA (A,D)

Erdi Mailako Heziketa Zikloa

“Erizaintzako Zaintza Osagarriak”

Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13

e-mail: jmiparragirre@edunet.es

Sta. Barbara bidea z/g.

20700 Urretxu



Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

Tel.-fax: 943 72 12 14

e-mail: 012284aa@hezkuntza.net

Sta. Barbara bidea z/g.

20700 Urretxu

ARGAZKI ZAHARRA



Urola sortu aurretik ere makina bat futbol talde egon zen Urretxu eta Zumarragan. Hona hemen haietako bati 1934-35 denboraldian ateratako argazkia. Atzean, Irimo mendia eta Legazpi dorretxea ikusten dira.

Zutik, ezkerretik eskubira: Pascual Rubio, Luis Irizar, Jose Arrazola, Ramon Esnaola, Ramon Rubio, Jose Odriozola "Txato".

Belauniko, ezkerretik eskubira: Gregorio Arrizabalaga, Jose Miguel Mendizabal, Castor Ormazabal, Benedicto Zaldua, Jose Maria Ormazabal.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.


Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.


Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

2005eko abendua

KLIK ETA KLIK



KLIK ETA KLIK




Hilabete honetako erretratoak Argazkia elkarteko Carlos Abasolok egin ditu.

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - # 9437 4012 -

RAGA

Zer gertatuko da urta

Azken aste hauetan zeresanik eman duen gairik bada, tabakoarena da. Gorabehera askoren ondoren, estatu espainiarreko parlamentuak Tabakoaren Aurkako Legea onartu zuen abenduaren 15ean. Lege hau urtarrilaren 1etik aurrera izango da indarrean: lanean, ospitaletan eta ikastetxeetan..., toki itxi gehienetan, ezingo da erre. 100 m2 azpiko taberna eta jatetxeetan, berriz, ostalariak hala nahi badu soilik erre ahal izango da. Bestalde, adin txikikoak erretzaileen tabernetan ezingo direla sartu esaten da. Urretxu eta Zumarragan, zer gertatuko da? Legea zorrozki betearaziko al da? Erantzunaren bila, Iñaki Lizarralde eta Mari Mendoza tabernariengana eta Itziar Agirre abokatuarengana jo dugu.



Itziar Agirre Urretxuko zinegotziak aholkularitza bulego batean lan egiten du eta bezeroen artean ostalariak dituzte. Hori dela eta, Tabakoaren Aurkako Legea goitik behera irakurri du dagoeneko. Dena den, ez du batere argi ikusten legeak dioen guztia betearaziko denik.

Zer azpimarratuko zenuke lege berriaz?

Lokal handiek 8 hilabete izango dituzte erretzaileentzako txokoa egokitzeko. Bestalde, printzipioz zigorrak administratiboak izango dira: udalek eta Eusko Jaurlaritzak bideratzen dituztenak. Erre ezin den tokian erretzen ari denari isuna jar diezaiokete, baina baita ostalariari ere.

Erretzaileentzako txokoa egokitu bitarteko 8 hilabeteetan, lokal handietan erretzerik izango al da?

Printzipioz, egokituta ez dauden tokietan debekatuta dagoela jartzen du. Baina 8 hilabete horietan utzi egingo dietela suposatzen dut.

Bestalde, ostalaritza lokal txikia dutenek euren lokalean erretzea utzi edo ez erabaki behar dute.

Erabakia jakinarazi egin behar dute eta lokalean erre daitekeen edo ez dion kartela begibistan jarri behar dute. Bestalde, erre ezin den tokian ezin da tabako makinarik egon.

Urtarrilaren 1etik aurrera?

Besteetan makinak barrualdean egon behar dira, tabernariak kontrola dezakeen tokian. Horretaz gain, makinek gailuren bat izan beharko dute ostalariek tabakoa nork erosten duen jakiterik izan dezan. Gailu homologatu hori nolakoa izango den ez da zehaztu oraindik.

Ostalariei egoera deserosoak jasatea tokatuko zaie beharbada. Euren lokalean erretzerik ez badago, erretzen hasten denari aurre egin beharko diote.

Ezin dute erretzen utzi, bestela zigorra jaso baitezakete. Baina erretzaileak ere isuna jaso dezake, norbaitek salatzen badu. Erreklamazio orriak eskatzen baditu, akabo. Izan ere, orri horiek Eusko Jaurlaritzara heltzen dira.

Elkarteekin zer gertatuko da?

Onartu berri den legeak dion guztia toki publikoen ingurukoa da: ikastetxeak, kirol instalakuntzak, zentro komertzialak, kulturguneak... Elkarreak pribatuak dira eta eurek erabaki behar dute zer egin nahi duten.

Zer uste duzu gertatuko dela urtarrilaren 1etik aurrera?

Jendeak nola erreazionatzen duen ikusi beharko da. Nire ustez, jendeak salaketarik jartzen ez badu egoerak antzera jarraituko du. Lokal handietan aldaketak egin behar dira eta hori zainduko da, baina txikietan... Beharbada, ertzainek tabernak itxita dauden ikusteko erronda egiten dutenean tabakoarena ere begiratuko dute. Baina, egunez... Nire ustez, hasieran ez da legea beteko; pixkanaka hasiko da betetzen. Kanpaina egingo da, gero jakinaraz-

penak egongo dira... Lehen zigorrak helitzen diren arte...

Legea atera duenak berak legea bete-araztea zaila izango du...

Festetan nork kontrola dezake hau? Nola kendu puruak frontoietatik? Aplikatzea oso zaila da. Ertzaina joan behar al da frontoietan puruak erretzen diren kontrolatzera? Norbaitek salatzen badu arduraduna Udala da, frontoia berea baita. Isuna ere berak jarri behar al du? Denborarekin ikusi beharko da nola egiten den horren kontrola, zer isun jartzen diren... Beharbada hasieran isun txikiak jarriko dira, baina ostalarientzat isun guztiak gogorrak dira. Erretzaileentzako isu-

**Itziar Agirre:
"Jendeak salaketarik jartzen ez badu egoerak antzera jarraituko du"**

nak 30 eurokoak dira, baina debekatutako toki batean erretzen uztea larritzat hartzen da eta 600 eurotik gorako isuna aurreikusuten da halakoetarako. Falta arina kartela ez jartzea da, baina tabakoa saltzea larria da. Bestalde, hiru falta arin egitea larritzat hartzen da.

Dena den, gizartean bertan tabakoaren aurkako jarrera geroz eta indar handia-

goz nagusitzen ari da.

Baliteke seme-alabekin kafea hartzen ari denak norbaitek taberna horretan erretzea oso gaizki hartzea. Gaur egun jendeak oso argi du zeintzuk diren bere eskubideak. Betebeharrak ez dakit, baina eskubideak...

Beste batzuentzat, ordea, eragozpena izango da haurrekin taberna edo kafetegi batzuetan ezin sartu izana.

Beharbada. Baina legearen helburu nagusietako bat haurrak babestea da.

Helburu horiek eta gainontzekoak lortzeko, beste erabaki batzuk ere hartu behar dira, ala?

Bai. Tabakoaren publizitatea, hamar zigarroko paketeak eta tabakoa erosteagatik opariak egitea debekatu egin behar da, adibidez.


Abokatua izanik, legea goitik behera ezagutu beharko duzu...

Bai, aholkularitza bulego batean lan egiten dut eta gure bezeroen artean ostalariak ditugu. Argi dago etorriko zaizkigula, orain informazio bila eta aurrerago, beharbada, zigorren bat jaso dutelako.

Erretzailea al zara? Zuri zer iruditzen zaizu hau guztia?

Nik parranda egiten dudanean soilik erretzen dut. Ez zait gaizki iruditzen erretzaileentzako tokiak mugatzea, askotan kea gehiegizkoa izaten baita. Taberna batzuei dexente zailduko die kontua, egunez eta gauzez lan egiten baitute. Horiek aukeratu egin beharko dute eta, beharbada, bezero batzuk galduko dituzte.

Ferretería BRAVO, S.L.



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxe: 943725431 - ZUMARRAGA

HILABETE HONETAKO GAIA

Iñaki Lizarralde: "Adin txikikoei irakatsi eg

Tabernariei dagokionez, taberna handietakoek erretzaileentzako eremua jarri beharra dute. Txikietakoek, berriz, euren tabernan erretzen utziko duten edo ez erabaki behar dute. Urretxun eta Zumarragan ez daude legeak handizat jotzen dituen horietakoak. Taberna txiki guztiek edo ia guztiek, berriz, erretzen utziko dute. Kontu hau nola bizi duten jakiteko, The Intrepid Fox tabernako Iñaki Lizarralderekin izan gara. Drogen inguruko hausnarketa interesgarria ere eskaini digu.

Ba al dakizu legeak zer dioen?

Zurumurruek besterik ez daude: taberna batzuetan ezingo dela erre, adin txikikoak ezingo direla erretzaileen tabernetan sartu, ezingo dela jatetxeetan eta pilotalekuetan erre (ez dut sinisten)...

Garrantzia handia eman al diozue?

Gauza oso ezberdinak entzuten dira. Interneten zer edo zer begiratu dut, baina gehiegi ez kezkatzea erabaki dut: azken finean, dena delakoa inposatu egingo digute eta kitto. Legea nork betearaziko duen, auskalo.

Tabernariak bilerarik egin al duzue?

Gertukoekin hitz egin dut, baina ez dugu bilerarik egin. Jendeak okerren



ikusten duena taberna batera sartu behar baduzu zurekin doan adin txikikoa kanpoan utzi beharra da. Nire bezero batzuek haur jaio berriak dituzte eta tabernan jende gutxi dagoenean sartzen dira. Urtarrilaren letik aurrera orduan ere ezingo dira sartu.

Sartuko balira zu kaltetuko zintuzkete. Izan ere, eurak kanpora bidali ezean, zigorra jaso dezakezu.

Hor dago kokka. Ez dago nire esku bezeroei noiz baimendu sarrera eta noiz ez. Haurrak dituzten tabernariak hau-

rak kanpoan utzi behar al dituzte zer edo zer egiteko tabernara sartu beharra badute?

Zer uste duzu gertatuko dela urtarrilaren letik aurrera?

Abian jartzen denean ikusiko dugu zer gertatuko den. Nire ustez, lege hauek ez dute zentzu handirik eta euren zer zentzu ematen dioten ikusi behar. Entzun dudaren arabera, tabernetan erre daitekeela edo ezin dela dioen kartel handi bat jarri beharko dugu.

Zeure burua gaztetxoei sarrera galarazten ikusten al duzu?

Agian hala ibili beharko dut, zer nolako kontrola ezartzen den ikusi behar. Astean zehar ez dira mutiko asko etortzen. Normalean kafea hartzen badute eta egun batean

zurtoa eskatzen badute, ez da ezer gertatzen. Bata bestearen atzetik zuritoak eskatzen hasten den gazteari, berriz, ezetz esaten diot. Euren dinamika ikusten dut erabakia hartu aurretik. Tabakoaren Aurkako Legea, ordea, ez dut ulertzen: taberna batean ezin da erre, baina kalean bai. 16 urtekoak tabernetara ez joatea lortuko dute, baina ez erretzea... Makinetan eta estankotan ezingo dute tabakoa erosi, baina lortuko dute. Merkatu beltza sortuko da.

...

Gauza asko daude debekatuta, baina egin

Mari Mendoza: "Batzuei edo besteei atea itxi behar dizkiet"



Tabakoaren aurkako legea zeresan handia ematen ari den seinale, Ezkurra tabernan horretaz hitz egiten ari ziren sartu ginenean. Ez da harritzekoa, oso bezeria zabala baitute eta erabaki bat hartu edo bestea hartu bezeroen zati bat edo bestea hasarrarazi eta galdu baitezakete.

Ezkurra tabernako Mari Mendozak badu nahiko buruhauste tabakoaren aurkako legea dela eta. Oraindik ez du erabakirik hartu, baina...

HILABETE HONETAKO GAIA

n behar zaie, ez debekatu”

egiten dira. Zergatik? Uzten delako. Noizean behin sarekadaren bat egiten dute jendeak gazteek porruak erretzearen aurka zer edo zer egiten dutela ikus dezan, baina beraiei komeni zaie gehien gazte zehatz batzuk porruak erretzea. Tabernetan erre egiten dela? beraiek dira urtetan erretzen utzi dutenak eta! Gainontzeko drogez zer esan... komunak ixtea al da irtenbidea? Bestalde, zergatik erretzen du jendeak, nahiz eta jakin txarra dela? Beste batzuek internet behar dute edo egunero Irimora joatea. Kontrola galtzea edo drogak denetik ihes egiteko erabiltzea iruditzen zait gaizki, gauzei erabilera txarra ematea. Norberak bere ekintzen gaineko ardura hartu behar du eta inori kalterik ez egin, kitto. Adin txikikoei irakatsi egin behar zaie, ez debekatu. 16 urtekoari ez erretzeko esaten badiozu, orduan erreko du.

Zer gertatuko da asteburuetan?

Herriko taberna ia guztietan erretzerik badago, zer egingo dute 18 urte azpikoek? Etxean geldituko al dira telebista ikusten? Kalera irteten diren gazteen gurasoek badakite euren seme-alabak zertara irteten diren. Aste osoa ikasten eman eta gero, asteburuan ligatzera irteteko, lau trago hartzeko... eskubidea dute. Guk ere hala ikasi genuen. Lege hauekin gazteek mendira joan eta futbol partidak ikusi besterik ez dutela egingo uste badute, jai dute. *Garitoetara* joango dira eta hauetan tabernetan baino askatasun handiagoz edan eta erreko dute.

"Ez dut batere argi ikusten. Niregatik erretzen utziko nuke, baina haurrei atea itxteak min handia ematen dit".

Bezeroren batek erretzen uzten ez badu ez dela gehiago sartuko esan dio. "Ume txikiak dituen emakume batek erretzea debekatzen badut ez dela gehiago sartuko esan dit, baina egunen batean nire beharra izan dezakeela esan diot. Haurrekin ateratzen denean erretzea debekatzen duten tabernak beharko dituzte", dio Marik.

Ezkurran haur asko sartzen dira euren gurasoekin, baina baita erretzaile asko ere. "Goizetan ia denak erretzaileak dira, baina arratsaldeetan kafetegiak haurtzainde-

Zuentzat zaila izango da asteburuetan adin txikikoen sarrera kontrolatzea.

Guk ezin dugu ezer egin: tragoa eskatzea datorrenaren adina kontrola deza-kegu, baina ez izkina batean eserita dagoenarena. Tabernariok atean *gorila* bat jarri beharko bagenu, dauden tabernen erdiak itxiko lirakeke.

Zer diote bezeroek?

Jendeak hasieran 100m2 baino gutxiagoko tabernetan ezingo zela erre uste zuten, baina ez da hala. Ez dirudi kontua asko aldatuko denik. Erretzailea drogazale gisa aurkezteko joera dago eta luzera toki askotan ezingo da erre. Taberna giroak sortzen dituen kalteez asko hitz egiten da, baina onurak ere baditu. Jendeak tabernetan ibiltzeari uzten dionean, etxean ordu asko emango ditu eta beste arazo batzuk sortuko dira. Gure tabernan inork ez du alkohol asko edaten astegunetan, jende gehiena lagunekin egotera etortzen da. Gainera, ez da tabernan bakarrik edaten eta erretzen, etxean ere asko edaten eta erretzen da. Baina norbaiti guztiok etxean sartuta egotea komeni zaiola dirudi.

Nola bizi duzu hau erretzaile bezala?

Erre ezin daitekeen tokira joanez gero, ez dut inongo arazorik. Erretzailea naiz, baina batez ere pertsona adeitsua. Hori dela eta, lege berriak ez nau kezkatzen. Erretzailea izanik arazo bat dudala onartzen dut eta kitto.

gia dirudi. Batzuei edo besteei atea itxi behar dizkiet: haurrei ala erretzaileei".

Beste bezero batek bera ez zela inori sarrera galarazteko gai izango esan zion. "600 euroko isuna jokoan baduzu... behin erabakia hartuta, erabakitakoarekin aurrera egin beharra dugu".

Zer erabaki hartu, ordea? "Sekula ez naiz halako egoeran izan. Bezeroen artean erreferenduma egiteaz ere hitz egin dugu. Entzundakoaren arabera, bezero gehienek tabernan erretzen uztea nahiago dutela esango nuke. Dena delako erabakia hartuta ere, inor agintzera etorri arte ez dut martxan jarriko", dio Marik.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



BAPRI
ANIMALIADENDA


Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako
mintegiak



Informatika nire enpresarako: Askea ala ordaindutakoa?

Aplikazio informatikoen merkatua oso zabala da, baina, **nire enpresarako softwarea** hautatzerakoan zein da kontuan izan behar dudana irizpidea? Zein **sistema eragile** hautatuko dut? Ze **nabigatzaile**?, bestelako ze **programa ofimatiko**? Galdera hauei eta suertatu daitezkeen beste hainbateri erantzuteko asmoz zenbait irizpide emango dizkizugu mintegi honetan, eta **zure enpresan** doan **erabiltzeko** tresnak dituen **CDa** ere **emango** dizugu.

Urola Garaia
urtarrilak 31
ZUMARRAGA

Urola Garaiko Fundazioa
(UGLE)

Ordutegia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

Julian Arin, Jose Mari Aztiria, Jose Mari Gabiria eta Pello Garziandia

Gu ahuntzaren ezgularen alde

Sorospideko Arauaren eztabaidan, Zumarragako EA udal taldeak, herria zeharkatzen duten trenbideak iraitzeko azterketa baten beharra proposatu zuen.

DV-ko herriko orrialdeetan azaldu zen albiste honi, laster erantzun zion alkate jaunak, aipaturiko orrialdeetan egin zitzaion elkarrizketa batean, non zer iruditzen zitzaion EAren ekimen hau, ahuntzaren ezgularen modukoa zela erantzun zuenean.

Egun, Zumarraga bezala trenbideak zeharkatzen dituzten zenbait herri, euren garapen iraunkorra mugatzen duela ikusiz jokaera batzuk hartzen hasita daude, trenbideak lurperatu ala trena saihesbide batetik heldu dezan.

Arbulu jaunak betidanik uko egin dio bere uztatik atera ez den edozein proposamenei, nahiz eta honek Zumarragari eta herritarrei abantaila nabarmena suposatu. Beraz, ohituta gaitu horrelako jokaearekin.

Ahuntzaren ezgula aipatu dugunez, zer arraio egiten ari dira, esate baterako, Bizkaiko zenbait lekutan -Bilbo, Basauri, Basurto, Durango, Balmaseda edo Ortuella aipagarrien artean- non milaka eta milaka euro kosta edo kostatzen ari diren, trenbideak lurperatu ala ibilbidea aldatzeko ekimenak bul-tzatuz...

Esan dezagun, Bizkaian trenbideak ezkutatzeko ari diren gertaera honi guztiari, "Trenbideengatik ezkutuan egon den Bizkaiaren berragertzea" deitzen zaiola.

Gure lurraldean, berriz,

guk dakigula Eibar, Ordizia eta Beasainen ari dira dagoeneko, herri horiek zeharkatzen dituzten trenbideak lurperatu edo saihestu nahian. Gainera, Goierriko herri horietan lortu dute jada Fomento erakundeak udaletan proposatu duten azterketaren finantzaketa. Orduan, orain arte aipatu diren herri horietan guztietan, ahuntzaren ezgula baldin badute eredu, hemen zergatik ez?

Atzean adierazi dugun guztia esan genezake hemen bul-tzatu nahian gabiltzanaren ispilu dela, erakunde ezberdinen babesa dutela gainera; zergatik, bada, hemen ez da posible izango epe ertain batean gaur Zumarragan oztopo suposatzen duten trenbide madarikatu horiek pasadizo bihurtzea?

Lerro hauen hasierara etorriz, badirudi ekimen hau susmo txarrarekin jaio dela, eta zenbait kontrajartzerekin aurkitu genezakeela. Horregatik sinatzaileek garbi utzi nahi dugu, ez dugula amorerik emango, azterketa martxan jarri arte behinik behin. Eta horretarako prest gaude ahal dugun baliabide guztiak erabiltzeko, ea denon artean lortzen dugun trenbide gabeko Zumarraga. Herriak eta datozen belaunaldiak eskertuko digute.

Eta bukatzeko, ezin dizuegu aurreratu zer nolako abantailak edo etekinak izango lituzkeen herriak ekimen hau burutuko bagenu, lan hori hirigintzan dabil-tzanei uzten diegu. Baina sinestu ezazue herriko erdiguneak izugarrizko iraulketa izango lukeela.

Hala izan bedi.




HARATEGIA URDAITEGIA
☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA



Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57



ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Juanlu Escudero: okind

Aktore zumarragarra "El hombre de los dados"

Bi Udaletako Kultur zerbitzuek datorren urteko antzerki egitaraua ia prest dute dagoeneko. Lehen emanaldia, ohi bezala, otsailean izango da eta bigarren saioan, martxokoan, Juanlu Escudero herritarraren antzezlan ikusteko aukera izango dugu: "El hombre de los dados". Escuderoekin solasean izan gara antzezan honi eta etorkizuneko egitasmoei buruz.

Ia bi hilabete pasatu dira antzezlan estreinatu zenutenetik, gustura al zaudete?

Azaroaren hasieran estreinatu genuen Barakaldon eta, orduan, Euskal Herriko hainbat tokitan izan gara: Lizarran, Donostian, Gernikan... Ikusi duten gehienek Ramon Barea zuzendariak lan ona egin duela eta aktoreon lana txukuna dela esan dute. Antzezanak ia bi ordu irauten duenez, apur bat mozten saiatzen ari dira.

Zertan datza antzezlanak?

Izenburu bereko liburuaren moldaketa da. Liburu hau psikiatra batek idatzitua da eta hein handi batean autobiografikoa da. Psikiatra ospetsu hau nazkatu samar dago erabakiak hartzeko erabiltzen dugun prozedura mugatuaz eta bere bizitza dagoen esku uztea erabakitzen du. Erabaki bat hartu behar duen bakoitzean aukera guztiak idatzi eta dagoa botata erabakitzen du zein aukera hartu. Azkenean, besteak beste, lana eta emaztea galtzen ditu eta hil-



Dadoek agintzen dute egin beharrekoa Juanlu Escuderoen antzezan berrian.

keta bat leporatzen diote. Oso komedia garratza da.

Zein da zure papera?

Zazpi aktorek parte hartzen dugu eta gehienok hiruzpalau pertsonaia egiten ditugu. Nik ospitalean dagoen gaixoarena, fundamentalistarena, gaixo masokistarena eta New Yorkeko polizia inspektorearena egiten dut. Aktore nagusia Mikel Losada aktore gaztea da eta honek pertsonaia nagusia bakarrik egiten du. Losada

Kutsidazu bidea, Isabel pelikulako aktore nagusia ere bada.

Gustura al zaude zure lanarekin?

Denbora dexente neraman taldean, antzerki talde profesional batekin, lan egin gabe, *Manolito Gafotas* egin genuenetik hain zuzen ere. Izan ere, azkenaldian tabernetan, gaztetxeetan, kultur etxeetan... bakarrik egiten ibili naiz. Egun, Illargui okindegian lan egiten ari naiz eta bi lanak uztartzea oso gogorra izan da.

egitik antzokira bueltan dos" martxoko emanaldian parte hartuko du

Lantegiko lana eta antzerkikoa zeharo ezberdinak dira eta aldi berean biak egitea zoramenaren izan da. Oporraldi bat baliatzen nuen entseiuak egiteko eta Illarguin lan egiten dudala ere ahaztu nuen ia. Dena den, errealitatea beste bat da eta lantegian lan egin beharra dago familia aurrera ateratzeko. Antzezlan hau opari modukoa da.

Esfortzuak merezi du, beraz.

Hilean bost bat emanalditan parte hartzeko moduan naiz, baina hortik gora gehiegitxo da niretzat. Dena den, istorio txukuna badago, beti merezi du eskenatorkira igotzeak.

Telebistan, zinean... beste lanen bat ba al duzu?

Telebistatik eta zine mundutik deitzen didate oraindik ere, baina oso gauza puntualak egiteko. Orain jarduera artistikoarekin inongo zerikusirik ez duen mundu batean nabil, baina oso ondo hartu naute eta oso gustura nago. Lanbide bat

ikasteko aukera eman didate eta hori uzteko pertsonaia nagusiren bat eskaini beharko lidaketek.

Okindegiko lanera moldatzea ez zen erraza izango.

Gogorra izan zen: egunero ordu berean, toki berera eta jende bera ikustera joan beharra izan zen gogorrena. Izan ere, aktoreok gure lanean egiten dugunaren kontrakoa da. Gogorra izan zen, baina edozertara moldatzeko gai gara.

Gainera, egitasmoren bat edo beste izan- gogoz duzu buruan...

Bi egitasmo ditut eskuartean, herrian bertan. Alde batetik, Oskar Cadierno lagunarekin balio handiko bi pertsonaien arteko buruz burukoa prestatzen ari naiz. Antzezlan komikoa da, gaurkotasan handikoa eta ausarta. Komedia bikaina izango dela esango nuke, jendearen gustukoa izan daitekeena. Juduen munduaz hitz egin behar dugula eta pertsonaia nugu-

siak Abraham eta Samuel izeneko bi judu direla soilik esan dezaket.

Eta bigarren egitasmoa?

Antzerki tailerrekoek euren antzezlan bat zuzentzera gonbidatu naute. Heriotza osoa *dugu aurretik* izenburuko komedia da. Antzezlan hau tailerreko kideek eta Jose Luis Padronek landu zuten, baina bere garaian bazterrean gelditu zen. Bai tailerrekoek eta bai Padronek zer edo zer egiteko gogoia zuten eta honi heldu diote. Jose Luis bera oso gogotsu ikusten dut. Antzelana euskaraz estreinatuko da, Santa Isabel ondoren-edo.

Nola ikusten duzu antzerki mundua?

Ez dut desenkontatu hitza erabili nahi, baina oso gogor lan egin eta deus ez lortzea gerta daiteke. Jendeak denborapasa arina besterik ez du nahi. Dagoeneko antzerkiak ez du ezer iraultzen, aldatzen edo berritzen. Ikusleek antzokitik atera eta berehala ahazten dute ikusi dutena.



www.megadenda.com

ramos
Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx
Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutuan

tarjeta megadenda txartela



Araiz Padrón

Abendua: biztanleon iratzargailua

Abendua hitzaren definizioa eskatuko balidate, urtearen hamabigarren eta azken hila dela esango nuke, lasai asko. Egunotan, aldiz, (beti esan beharko nukeen arren) jende eta gertaeren neurria aztertzen ibilia naiz eta beharbada definitze modu horretan aldaketak egin beharko nituzke.

Izan ere, bi herri hauetako jendearen jokabideak 360^ako bihurtzea adierazten du. Aldaketa horren eragileak, badu izen propioa, eta denok ezagutzen dugu, KULTURA, hain zuzen ere. Ez dut hilabete osoagorik aurkitzen, abendua baino.

Hilabete honek asko du ikusi eta oroitzapenean gordetzeko; hortaz, argazki rallyan parte hartzen hasi naiteke. Gabonetan ontzat ematen dugun hori lau haizetara zabaldu behar dela esaten digute behin eta berriz. Oraingoan diotena egingo dut; argazki film horretan sortu ditudan batbateko irudiak Juan de Lizarazu aretoko erakusketan desberdinetan gehituko ditut.

Aretoa alde batean utzi, eta behin kalean barna, haurrak ikusten ditut, iskanbilan. Hara! Olentzero, aspaldiko laguna... Banoa eskatu diodan hori oroitzen duela ziurtatzera. Uf, baietz esan dit... *Hator, hator* kantatzen hasi direnean bilantzioko ezaren sindromea jaio zait, eta San Martin de Tours elizan egin dut hurrengo parada; ezin galdu Gabonetako kontzertua.

Irteeran, tripa zorriak 24ko afaria ekarri dit gogora. Aurten, sorpresa emango diet etxekoei. Mairi elkartera abiatu naiz pentsatu gabe eta sukaldaritza ikastaroan eman dut izena. Menua prest. Lastima ardo kontuetan aditua ez izatea...

Zorioneko hilabete oni esker, hori ere ez da arazoa. Zerbaiterako dago Arabako Errioxako ardo lehiaketa eta dastaketa! Kontent atera naiz alkohol pilo hartatik. Lagun ezezagun oparia egiteko gogoz! Santa Lutzitako Feria ospatzeak erreztuko dit lana, bai horixe...

Postuz postu ibiltzeak barrenak hoztu dizkit. Poltsikoan geratzen zaidan diru apurra zenbatu eta Zelai Aristi aretoan berreskuratu dut beroa, hitz eta ikuskizun bihurtua. Etixerako bidean X. Gazte Astearen oihartzunak iritsi zaizkit; eta ni ere gazte sentitu naiz, mundua tontorretik ikusteko gosez. Goierri K.E. besotik hartu eta abian ipini dut mendi martxa. Izerdiak, geratzeko ordua iritsi dela esaten dit. Pentsatzen jarri eta ekintza hauetan guztietan jaso ditudan gutxi ez direla aitortu dezaket. Emozioa, jakinduria, irribarra, esperantza, gogoa... Guztiekin beste abendu bat osatu eta Erakusleihu Lehiaketan parte hartuko dut...

Abendua hitzaren definizioa eskatuko balidate, urtearen hamabigarren eta azken hila dela esango nuke, lasai asko. Jende eta gertaeren neurria aztertzen ibilia naizen honetan, aldiz, abendua jada ez zait hilabete soil bilakatzen. Abendua. Hotzaren etxea. Kulturaren ama. Biztanleon iratzargailua.

PD: Garazi lehengusina margolari omen dator. Krisma txapelketara bidali duen horretan, esaldi hau gehitzea eskatu diot: Gabon onak igaro eta urte berri on urretxuar eta zumarragar guztioi!




Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Zer iruditzen zaizu Tabakoaren Aurkako Legea?



Javier García de Andoin

Nik egunean zigarro pare bat besterik ez dut erretzen, baina kontua oso gatazkatsua dela iruditzen zait. Jatetxeak eta tabernak erretzearekin oso lotuta daude eta bezero on asko erretzaileak dira. Goyerri elkartearen hasiera batean behintzat, erretzen utziko dugu. Debakatu bagenu, seguraski, bazkide askok alde egingo lukete.




Maria Erostarbe

Oso noizean behin erretzen dudanez, legeak ez dit asko eragiten eta ez diot garrantzia handirik eman. Dena den, ingurukoek erretzeak ez dit molestutzen. Gainera, tabakoa fabrikatu eta saldu egiten dute, baina gero ez dute erretzen uzten. Hori ez zait batere ondo iruditzen. Jendeak erretzeari uztea nahi badute, utzi die-zaiotela fabrikatzeari.



Lourdes Auzmendi

Nahiko lan izango dugu... Izan ere, erretzailea naiz. Etxean sukaldean eta balkoian soilik erretzen dut. Umeekin ibiltzen naiz autobusean eta nola edo hala agoantatzen dut erre gabe. Uzten ez duten tokitan moldatzen naiz, baina irten bezain pronto... Urte hasieran erretzeari uzteko asmoa dut, alabari hala agindu diot, eta beharbada lege berri hauek lagungarriak izango dira.



Nuria Molina

Duela hiru urte arte erretzailea izan naiz. Orain hartu behar dituzten neurriek ez didate gehiegi eragiten. Hori dela eta, ez dut gai honen inguruan asko pentsatu. Dena den, tabernetan erretzea galeraztea oso zaila ikusten dut. Betidanik egin izan den gauza da.

Muntatze e Instalazioen Enpresa
HERCE
Elektrikitate, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA

Jatetxe
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

**Denda alokatu edo
saltzen da Antzuolan**
Martxan dagoen
argazkidenda-bitxitegia

943 78 70 66
635 757 271

BIONA

AROTEGIA
Altzariak neurria

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

ETXABURU
merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Mari Carmen Mendia,



Urretxun eta Zumarragan kantuz hitz egitea eta Mari Carmen Mendia aipatzea bat dira. Izan ere, emakume honek garai batean Urretxuko parrokiako abesbatzan abestu zuen, egun Zumarragako parrokiako koruan abesten du eta Goiargi abesbatzako kidea da sorreraz geroztik. Abesbatza guztietan bakarlaria, kantua uzten duenean hutsune handia nabaritutako dute Urretxu eta Zumarragako zaletuek.

Zein familian jaio zinen Mari Carmen?

Gerra garaian jaio nintzen, 1937an, Frantzian. Izan ere, aita kartzelan sartu zuten eta nire ama bertara bidali zuten haurdun zegoela. Dena den, urtebete baino lehen Urretxura etorri ginela esaten zuten.

Zure gurasoak urretxuarrak ziren, ala?

Ez. Ama andoaindarra zen eta aita bizkaitarra, durangoarra. Aitona Baskongadoetako makinista zen eta hemen hartu zuen etxea. Aita artean kartzelan zegoenez, ama aitagarrebarekin eta nirekin etorri zen Urretxura 1938 inguruan. Ipiñarrieta taberna zegoen etxean jarri ginen. Han bizi izan ginen 1963a arte, ezkondu nintzen arte. Gero Jai-Alai kalean bizi izan nintzen 22 urtez. Alaba bakarra naiz.

Urte asko egon al zinen aitarik gabe?

Nik aita beti etxean ezagutu nuen, oraindik oso umea nintzela askatu baitzuten. Dena den, esaten zuten, aitak ni Zaragoza inguruko espetxe batean ezagutu ninduen.

Jazarpeneren bat jasan behar izango zenuten.

Astero koartelera joan behar zela entzuna dut, baina etxean bizimodu normala oroitzen dut nik. Goserik ez nuen pasa, baina inbidia bai: platanoa-eta... Dena den, gure etxean ez zen beharrezko gauzarik falta, ama Andoaingo Sorabilla auzoko baserri batekoa baitzen.

Nora joan zinen eskolara?

Mojetara, nire oraingo etxea dagoen tokian zegoen eskola hura. Bost urterekin hasi nintzen, etxean ikasi nuen irakurtzen eta idazten. Urruti samar bizi ginelako ez nintzen ordura arte joan eskolara. Izan ere, lehen urruti zen hura! Inguruan ez zegoen etxe gehiagorik, ijitoz beteta egoten zen... Koxkortu arte baten bat etortzen zen beti nire bila.

Zer ikasketa egin zenituen?

11 urte arte egon nintzen mojetan. Gero

Herriko ahotsa

Medranotarrengana pasatu nintzen, Kalebarrenen zeudenean. Hor bulegoko lanak ikasi nituen: mekanografia, kontabilitatea... Ez daukat titulorik, baina 16 urterekin Orbegozoko bulegoan lanean hasi nintzen. Ondoren, Milagros Mazkiaranekin takigrafia ere ikasi nuela gogoratzen dut.

Denbora asko pasatu al zenuen Orbegozoko bulegoan?

16 urte bete gabe hasi nintzen eta 10 urte eman nituen. Garai hartan ezkondu eta irten egiten ginen: horregatik utzi nuen, makina bat aldiz ondo damututa! Nik lana utzi eta hurrengo urtean-edo hasi ziren emakume batzuek lanean jarraitzeko eskubidea zutela esaten. Lehenago, noiz ezkondu

“Amari esker dakit euskaraz, nahiz eta lan horretan aitaren babesa zuen”

behar ginen galdetzen ziguten eta ezkontzen ginenean lan egindako urte bakoitzeko hila-bete bateko soldata ematen ziguten.

Zer oroitzapen duzu Orbegozon emandako urteez?

Garai hartan 3.000 lagun ginen. Beti erosketa eta salmenta sailetan izan nintzen, baina astero jende berria heltzen zela oroitzen dut. Neska gazteak ginen eta mutil gazteez hitz egiten genuen. Gutxi irabazten genuen, baina oso gogorapen onak ditut.

Lana utzi eta berehala, ama izatea tokatuko zitzaizun.

Ezkondu eta bederatzi hilabete eta zortzi egunetara lehenengoa izan nuen... Bost urtetan hiru neska izan nituen. Urte haietan, umeak hazi.

Baina gero lanera itzuli zinen.

Bai, baina askoz ere beranduago.

Arantxa eta bere izebak nire senar ohiaren familiakoak dira eta banandu ginenean libre nengoela eta zerbait egin nahi nuela esan nien. Baten bat behar bazuten, nitaz oroitzeko. Ordezkapenak egiten hasi nintzen, baina izeba jubilatuta zenean, Arantxa eta biok gel-ditu ginen. 14 edo 15 urte egin ditut bertan.

Gustura ibili al zinen?

Denda izugarri gustatu zait, jendearekin harremana-eta. Gainera, mertzeria oso denda polita da. Dena den, hor hasi baino lehen, umeak oraindik Ikastolara joaten zirenean, 80ko hamarkada hasieran, euskara klaseak ematen aritu nintzen. Ikastolako guraso erdaldunei euskara pixka bat irakastea pentsatu zen eta Jesus Mari Iturriozek lan horretarako deitu zidan. Alfabetatu gabe nengoenez, Koldo Sarasola fraideak klaseak eman zizkidan. Oso irakasle ona izan zen. Ondoren, Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua atera nuen.

Nolakoak izaten ziren klaseak?

Astean hiru aldiz joaten ginen. Guraso mordoxka bat elkartu zen eta bi talde egin genituen. Bestekoei Marixabel Arakistainek ematen zien. Oso giro polita izan genuen eta jendeak pixka bat behintzat ikasi zuela uste dut. Ondoren, Batzokian ere klaseak eman nituen. Klase hauek mojetara joaten ziren neskei eman nizkien.

Zergatik pentsatu ote zuten zuzan?

Euskaraz ondo nekielako izango zen. Nire gurasoen etxean elebitasun peto-petoa izan zen, aitzak ez baitzekien euskaraz: amarekin dena euskaraz egiten nuen eta aitarekin erdaraz. Mojak oso espainolak ziren, bandera eta guzti abesten genuen... Etxera joan eta erdaraz egiteko joera nuen. Amak "zer esan duzu?" galdetzen zidan behin eta berriro, euskaraz esaten nuen arte. Amari esker dakit euskaraz, nahiz eta lan horretan aitaren babesa zuen.

Gauza asko egin dituzu, baina kantuan aritzeagatik zara ezaguna batez ere. Norekin ikasi zenuen?

Jende askorekin, baina lehenengo-

Herri Aldizkaria

Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.

Merkea eta ona!

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

ARKUPE TABERNA

ZUEK BAI JAKIN!

Zumarragako parrokiko koruko kideekin, Antonio Rey zena buru.



1982an, Goiargi abesbatzaren lehen emanaldian.



lehenengo Don Santiagorekin: 13 urterekin. Garai batean Urretxun bizi nintzenez, Urretxuko parroki korukoa izan naiz, noski. 1982an, berriz, Goiargirekin hasi ginen, Don Antonio Rey zenarekin. Don Antoniok parrokiko abesbatza egitea erabaki zuenean, Xabier Barriolak hartu zuen Goiargi eta berarekin asko ikasi nuen. Jabier Arratibelekin ere asko ikasi dut azken urte hauetan. Beti kantatu dut, asko gustatzen baitzait.

Noiz pasatu zinen Zumarragako parrokiko korura?

Goiargin txapelketak prestatzen eta hasi ginen, baina Don Antoniok parrokiko korua berreskuratu nahi zuen. Urte asko neramatzan Zumarragan bizitzen eta apur bat behartuta sentitu nintzen. Pena eman zidan eta badakit Don Santiagori ere min eman ziola.

Zer moduzkoa da abesbatzen osasuna?

Zumarragako parrokiako koruan, Javier Arratibel eta Mikel Lizarralde lehen-gusuei asko zor diegu. Izan ere, beraiek jotzen dute organua elizkizunetan. Hiletetan Gaspar Arratibelek eta Lourdes Pozuetak jotzen dute, Javier eta Mikel dendariak baitira. Ez ginen nahikoa konturatzen, baina Don Antoniok zulo asko betetzen zituen. Izan ere, organua jotzeaz gain, abestu egiten zuen. Parrokian gabiltzanoi ahalik eta elizkizun goxoenak egitea gustatzen zaigunez, hileta elizkizunetara guztiok joateko konpromisoa hartu genuen. Egia esan, gus-tura gabiltza eta pixkanaka kantak berri-tzen hasi gara.

Eta Goiargin, zer moduz?

Javier Arratibelek izugarrizko lana egiten du eta asko eskatzen digu, baina Goiargin asko nabaritzen da adineko jendea gaudela. Batzuetan "ez dakit nola agoantatzen gaituen" pentsatzen dut. Izan ere, behin eta berriz gauza berbera esan beharra du. Nik uste ez diogula erantzuten berak nahi adina. Korua zahartu egin zaigu eta hobera egiteko garaia pasatu da. Bestalde, azken bolada honetan oso ema-

“Nik utzita gazteak
etorriko direla
jakingo banu, gaur
bertan utziko nuke
abesbatza”

naldi gutxi ditugu. Dena den, ez gara bakar-rak: Gipuzkoa mailan badaude oso onak diren koru batzuk, baina hiru edo lau beste-rik ez dira. Abesbatza horiek herrietako abesbatzen zuzendariekin-eta osatuta daude, gainera.

Jende berririk ez al da ageri?

Kimetsekoek utzi egin dute, baina ez dira Goiargira etortzen. Adineko batzuk utziko bagenu, beharbada etorriko lirateke-ela pentsatzen dut. Izan ere, neska gazteek "atso zahar horiekin nora joango gaitun ba?" pentsatuko dute agian. Nik utzita eto-

riko direla jakingo banu, gaur bertan utzi-ko nuke korua. Santa Zeziliatako jaialdira joan ziren, jarraituko balute... Gainera, guk baino askoz ere hobeto abesten dute. Dena den, oraindik mutilak faltako lirateke. Gure koruan lau tenore besterik ez dugu. Egia esan, etorkizunik ez dut ikusten. Gustatzen zaigulako jarraitzen dugu.

Izan ere, 1982tik hona une gogoangarriak biziko zenituzten.

Oso onak. Niri koruak asko eman dit: oso toki politak ikusi ditugu, urtero egun pare bateko txangoa egiten baitugu. Alemanian, Leonen, Sorian, Madrilen, Avilan... izan gara. Gainera, gure artean oso giro ona dugu.

Ez al duzu sekula herritik kanpoko abesbatzaren batean kantatu?

Ez, beste garai batzuk ziren. Duela hamar urtetik hona eskaini izan didate, baina duela hamar urte ia 60 nituen dagoeneko.

Jendeak deituta ere kantatzen duzu.

Dendan egon naizenean askori ezetz esan behar izan diet, ezkontzak denda orduetan izaten baitziren. Lagunen alabak edo semeak ezkontzen zirenean bakarrik joaten nintzen. Orain libreago nago eta, eskatzen badidate, baietz esaten dut. Lourdes Pozueta eta biok joaten gara. Gutxi izaten dira eta ez dakit denbora luze-an jarraituko dudan.

Hori galdetu behar genizun...

Noiz arte abestuko dut bada? 68

ZUEK BAI JAKIN!

urte ditut eta azken bolada honetan buelta asko ematen ari natzaio kontu horri. 70 urte bete eta gero ezin da itxuraz kantatu. Nekea nabaritzen dut: entseiuak 21:30ean izaten ditugu eta ni ordu horretan nekatua nago. Joatea kostatzen zait, baina gero gustura egoten naiz.

Zinegotzia ere izan zinen.

Lau urte egon nintzen, Arbuluren lehen legealdian. Ni EAJkoa naiz, eskatu egin zidaten eta egin beharrekoa zela uste nuen. Dena den, nahiko gaizki ibili nintzen. Hasieran ezetz esan nien. Izan ere, bilerak arratsaldeko 7etan izaten dira eta ordu horretan dendan nengoen oraindik. Berdin zela esan zidaten, hasieran dena da berdin... Egia esan, ondo moldatu nintzen. Euskara batzordean egon nintzen Joxean Alustizarekin eta Kulturari Juanjo Sagarnarekin. Batzuetan pozik eta bestetan haserreago, baina denekin ondo moldatzen nintzen. Oroitzapen ona dut.

Aurreko batean, familia guztiak noizbait kideren bat zinegotzi izatea komeniko

litzatekeela esan zenigun.

Bai, beste era batera jokatu genuke. Askotan oso erraz hitz egiten da Udalaren lanaz. Meritu handia ematen diet hor daudenei. Orain jende bat liberatua dago, baina lehen kobratzen genuena sinbolikoa zen. Dirua irabaztera ezin da joan Udalera, gustatu egin behar zaizu. Oso interesgarria da gauzak nola egiten diren ikastea. Gauzak ez dira diruditen bezain errazak. Askoz ere tolerantetagoa izaten ere ikasten da. Gehiengo handia izatea eta nahi dena egitea oso txarra da. Askoz ere interesgarriagoa da harremana eta eztabaida.

Zertan zabiltza jubilatuta zinenetik? Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Bilobak! Hiru biloba dauzkate eta bi etxean ditut. Bakarrrik bizi naiz, baina orain bost gaude. Izan ere, alaba eta suhia nirean daude euren etxea egin bitartean.

Amona izatea eta ama izatea oso ezberdinak dira, gainera.

Erabat desberdina da. Orain gehiago gozatzen da. Ama zarenean zuk

hezi behar dituzu eta ez daukazu horrenbete denborarik. Nik amaren laguntza izan nuen, hiru alabak bost urtetan jaiotzen baitziren. Oraingo umeen eta nire alaben belaraldikoen artean alde handia dago. Umeek duten informazioa, lau urteko txikia ordenarekin nola ibiltzen den... Txundituta gelditzen naiz, eskerrak iaz ikastaro bat egin nuen! Oso ondo pasatzen dut umeekin, nahiz eta ez naizen oso umezalea.

Egungo aitona-amonek garrantzia handia duzue gainera umeen zainketan.

Alaba eta bere senarra oso goiz irteten dira eta ni arduratzen naiz bilobez: gosaria eman, txikia autobusera eraman, bila joan, bazkaria eman eta arratsaldean berri autobusera eraman. Ondoren, lehenengo atsedean hartzea izaten da. Askotan hitza hartu eta hura irakurriz lo hartzen dut. Zenbat gogoratzen naizen nire amaz! Nekatuta zegoela esaten zidanean harritu egiten nintzen. Nabaritu egiten dira urteak! Ilusioa eta gauzak egiteko gogo badut, alde horretatik ez zait iruditzen 68 urte ditudanik. Baina gorputza nekatu egiten da.



Zorionak eta urte berri on!!



SASIETA MANKOMUNITATEAK
eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue.

2006an ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.

Gogoratu, urtero bezala, jaien ondoren gabonetako **PINUEN BILKETA** egingo dugula konposta bihurtzeko. **Traste zaharren egunean atera behar dira.**



Garcia Vara: bizitza osoa



1980an, Goierriko taldekideekin, Ederrena zaharraren aurrean.



1986-87 denboraldian, Zaragozan.

Bi herriotan eskubaloia-aren alde lan egin duen lagunik bada, hori Jose Angel Garcia Vara da. Goierri taldeko jokalaria lehenengo, Urola taldeko sortzailea eta epailea ondoren, 23 urte daramatza

dagoeneko Urolako taldeak entrenatzen. Bilobarekin denbora gehiago igarotzea gustatuko litzaioke, baina ez dio entrenatzeari utzi nahi bere beharra duten bitartean.

Nolatan hasi zinen eskubaloian?

Urretxun jaio nintzen, San Martin auzoan, baina Logroñoeko saletarretara joan nintzen ikastera. Han, 1970ean, 10 urte nituela, benjamin mailako taldea sortu genuen. Talde hartan GALEk hil zuen Oñaederrak jokatzen zuela oroitzen dut.

Noiz hasi zinen Goierriin?

Ikasketak utzi nituenean. Goierri desegin zenean nesken eskubaloi taldea sortu zen eta hori entrenatzen hasi nintzen, orduan sortu zen Urolako eskubaloi saila.

Zenbat urterekin itzuli zinen Logroñotik?

17 urterekin. Jubeniletako azken urtean hasi nintzen Goierriin, Juanito Dominguezekin. Senior mailan Larrarekin, Mitxel zenarekin, Juanfranekin, Ramonekin, Etxanizekin... jokatu nuen.

Garai hartan zaletasun handia zegoen.

Bai. Garai hartan hasi zen eskubaloiaren hemena. La Salle taldean jokatu zutenetik Goierri taldeko saila sortu zuten eta ni etorri nintzen urtean jubenil mailako taldea

ateratzeko asmoa zuten. Urretxuko jaietan txapelketa bat antolatu zuten eta hori jokatu genuen jokalariekin atera zuten talde hori. Arabako jubenil mailako selekzioan nengo eta horrek hona etortzeko balio zidan.

Noiz arte jokatu zenuen eskubaloian?

20-21 urte bitartean, gero 9 urte eman nituen epaile lanetan. Jokalari faltagatik Goierri desegin zenean utzi nion jokatzeari. Epaile lana, berriz, familiagatik utzi nuen. Garai hartan Zumarragako alkate zenaren babesna nuen, baina Lehen Mailako partidak epaitzen nituen eta horrek asteburuero Bartzelonara, Madrilera... joan beharra suposatzen zuten.

Nolatan hasi zinen epaile lanetan?

Federazioan sartu nintzen, animatu egin ninduten, ikastaro pare bat egin nituen eta ondo moldatzen nintzenez... Lehen Mailako epaile gazteena nintzen. Egun Ohorezko Mailan dauden taldeak zeuden, San Antonio adibidez.

Nolatan ez zinen Ohorezko Mailara igo?

Horra gora heltzen zarenean,

gauza arraroak ikusten dira. Ni gustura nengibilen, baina manipulazioak ezin nituen jasan. Hori eta familia zela medio utzi nuen. Dena den, oraindik noizean behin partidaren bat epaitzen dut.

Entrenatzen, neskekin hasi zinen.

Ondo hasi ginen eta epe laburrean arrakasta izan genuen: bigarren urtean txapel-dunordeak, hirugarrenean txapeldunak, eskolartekoan Euskadiko txapeldunak izan ginen, mutilen taldeak sortu ziren...


23 urte daramazu Urolako taldeak entrenatzen, erraz esaten da...

Urolan gauden kideok taldez aldatzen dugu: urte batean nesken taldea hartzen dugu, bestean kadete mailakoa, hurrengoan kadeteena... Aurten senior mailako bigarren taldea entrenatzen ari naiz. Taldez aldatzea komeni da, jokalariek jende ezberdinarengandik gauza ezberdinak ikas ditzaten. Urte batean zonalde honetako infantil mailako selekzioa entrenatu nuen. 14 mutil haietatik 8 Espainiako selekzioarako hartu zituzten eta oso pozgarria izan zen.

an eskubaloia bidelagun



80ko hamarkada amaieran entrenatzen zituen gaztetxoekin.



1999-2000 denboraldian, Urolak mailaz igotzea lortu zuen partidari.

Horrenbeste urte eskubaloian, ez al zaude nekatuta?

Biloba dut eta familiaz gozatzeko gogoia dut. Jende berriari tokia utzi nahi nioke, gazteagoi eman entrenatzeko ardurara. Dena den, Urolatik alde egiteko asmorik ez dut. Izan ere, jende premian gaude. Aurten entrenatzeari uzteko asmoa nuen,

“Gazte askok agurtzen naute kaletik noanean eta ez da seinale txarra”

baina ez zegoen ordezkorik. Nire beharrik ez dagoenean utziko dut. Inork ez nau behartzen, baina garai batean norbaitek, doan, jokatzera irakatsi bazidan...

Horretan gauzek okerrera egingo zuten.

Bai, bai... Tristeia da, baina egun edozer gauza antolatzen duen edozein enpresari gustura asko ordaintzen diogu eta ez gara deus kobratzen ez duten bolondresei euren lana eskertzeko gai. Eskubaloian jokatzeari utzi duten gazteei laguntza eskatu eta ezetz esaten dute. Bolondres lana galtzen ari da: entrenatzaileak, direktiboak,

delegatuak... falta dira, denetik. Gizartea asko aldatu da eta ez dago astean sei bat ordu eman nahi duen jende asko. Gazteekin lan egiteko pazientzia behar da, baina oso pozgarria da.

Kirol arloan gabezia txikiagoa al da?

Jokalariak badaude eta eskubaloi-zaletasunak osasun ona du. Alebinetako taldea dugu, kadete taldeak ez du partidarik galdu, jubenil taldera beste kiroletatik etorritako jokalariek daude...

Horrenbeste urtetan jarraitu baduzu, gustura ibili zaren seinale.

Bai, bai. Goierrri emaitza onak lortu zituen laguntaldea zen, kluba baino. Gainera, herriaren babesa genuen: Gernikako Arbola plazan jokatzeko genuen eta herritarrek talde euren zuten. Egun dugun zaletu kopuruaz ere harro gaude.

Jokalari bikainak atera dituzue.

Egun, Susana Fraile, Iker Serrano eta Naiara Elgarresta punta-puntan daude. Markel Beltzak ere Bidasoan jokatzeko du. Horrek zaletasuna bultzatzen du eta lanean jarraitzeko gogoia ematen du. Taldekook beraietaz oso harro gaude. Susana, adibidez, oso umetan hasi zen gurekin. Lehen partida Bizkaian jokatu zuela eta ez zela baloia gogor botatzen ausartzen gogoratzen dut: ez zion atezainari minik egin

nahi. Halako esperientziak oso politak dira, ea jende gehiago etortzen den atzetik.

Gazte onak al datoz?

Kadete taldean bi edo hiru gazte oso on badaude. Senior taldean ere oso jende ona dugu: Joseba Garmendia "Txamako", Aimar Elgarresta...

Hori guztia ez da kasualitea...


Oso lasai eta umil lan egin dugu eta, pixkanaka, emaitzak lortu ditugu. Neska-mutilak gurekin gustura aritu direla uste dut. Gazte askok agurtzen naute kaletik noanean eta ez da seinale txarra.

Gazte asko ezagutu dituzu, baina bat edo beste oso berezia izango da.

Susana Fraile Zelai-Arztin eskubaloian jokatu nahi zuen bakarra zen. Hori dela eta, Labeaga eskolakoekin, nire alabarekin-eta, hasi zen. Umea zenetik ezagutzen dut, beraz. Iker ere kuttuna dut. Futbolearen ez zebilen gustura. Eskubaloian jokatzera animatu nuen eta gustatu egin zitzaion. Gainera, koinatuaren iloba da.

Bukatzeko, pasadizuren bat kontaguzu.

Sekula ahaztuko ez duguna presidentea bere emazteari giltzurruna transplantatu behar ziotelako Burrianatik ziztu bizian itzuli zenekoa da. Abenduaren 27an operatu zuten eta dena primeran irten zen.



Pepe Bosque

Pepe Bosque Urretxun jaio zen, "Labeaga kaleko 4. zenbakiko 2. solairuan". Nahiago du Nazionaletara joan zela esan, Nazionaletan ikasi zuela baino. 14 urte bete arte joan zen eskolara eta, gero, amarekin lanean hasi zen. "Goxokiak saltzen genituen herriko hiru geltokietan: RENFEkoan, Urolakoan eta Baskongadoetakoan".

Handik urte pare batera, berriz, jostun lanetan hasi zen. "Vitoriano Ezkurra zenarekin hasi nintzen, apendiz gisa. 36 urte bete nituen arte josten aritu nintzen". Bosquek ez zuen batere gaizki egingo, Urretxutik Donostiara joan baitzen lanera eta handik Gasteizera. "Donostian konfekzio lantegi batean aritu nintzen eta Gasteizen, berriz,

Cortedis etxean. Jostun-etxe oso sonatua zen, desfileak eta guzti egiten zituena". Bertan gustura lan egiten zuen, kartzelan sartu zuten arte. "Kartzelan sartu bezain pronto, kalera bidali ninduten. Lan mundura itzuli nintzenez ateak itxita aurkitu nituen, 70eko hamarkada hasieran Irizarren hasi nintzen arte".

Bosquek hiru urte besterik ez zituen eman autobus lantegian. Ondoren, Osaba taberna ireki zuen Tio Mari zenarekin. "Etxe-Azpi elkarteko saltseroak ginen eta elkartekoek taberna irekitzera animatu gintuzten. Horretarako, Las Vegas taberna zela hartu genuen".

25 urtetik gora eman zituen Osaba tabernan, uda hasieran itxi zen arte. "Tabernak lana eta parranda asko egiteko aukera eman dit. Diru gehiago izateko aukera ere bai, baina ibili naizen moduan gustura ibili naiz". Taberna itxi ondoren, aspertu egin da. Orain Nagore eta Aloña alabek Tom Cat zena hartu dute eta aitarentzat opari modukoa izan da. "Goizetan tabernara lanera etorrita alabei mesede egiten diet, baina eurek niri ere egin didate taberna irekita".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Garai hartako ia gainontzeko guztiek bezala, pilotaria. Ederrena zaharraren gainean bizi ginen, gainera...

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Tabernan egotea, gazteekin. 5 hilabete eman ditut Osaba taberna gabe eta goizetan aspertu egin naiz. Goizetan mendira joaten nintzen apur bat eta arratsaldean alabari laguntzen nion Gabiriako ostatuan. Orain, Osaban, alabei mesede egiten diet, baina eurek ere niri egn didate taberna irekita.

-Bizitzeko toki bat?

Gabiria. Hura da lasaitasuna!

-Tabernarik gabe, ezin bizi?

Hogei urtetik gora daramatzat gazteekin eta dagoeneko beharrezkoa dut.

-Zer alde daude Osaba zaharretik berrira?

Lehengora zihoan jendea dator, baina taberna handiagoa eta prestatuagoa denez, beste bezero batzuk ere badatoz.

-Anekdotaren bat?

Osaba zaharra itxi ondoren, sei bat alditan Gabiriatik Urretxura etorri eta zuzenean tabernara jo dut.

-Osaba zaharra eta berria itxuraz oso ezbedinak dira, zergatik ez diozue izena aldatu?

Gazteek eurek esan didate Osaba izena mantentzeko. Hala, bide batez, "Tio Mari" zena oroitzen dugu.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Gaztaina-kolorekoak.

-Egindako azken oparia?

Ardo kaxa bat errefuxiatu bati.

-Eta jasotakoa?

Aloña Muñoa presoaren aitak oparitu didan makila.

-Data bat?

Hilaren 19a. Emaztearen urtebetetze eguna.

-Neska eta mutil izen bana?

Jesus, Aloña eta Nagore.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Gara.

-Gustuko telebista saioa?

ETB2 ikusten dut gustuen.

-Bereziki gorroto duzuna?

"Gran Hermano".

-Liburu bat?

Irakurri dudana azkena Jon Idigorasen "El hijo de Juanita Gerrickabeitia" da.

-Filme bat?

"La fuga de Segovia"

-Soinu bat?

Txistuarena.

-Usain bat?

Whiskyarena.

-Janari bat?

Makailoa, era guztietara.

-Ura ala...

Ardoa, eta ona bada, hobe.



*Badoa zaharra,
badator berria
izan dadila,
zorionaren iturria.*



URRETXU - ZUMARRAGA IKASTOLA

Ondo pasa Gabonak...

Urretxuko giroa!!



**Urretxuko
12 Tabernari**

*The Intrepid Fox • Laket • Motz • Goiko Kale
Ekaitza • Ezkurra • Florida • Navarro
Avenida • Buhame
HD • Soraluze*

... eta urte berri on!